LEGAZPI KLIMA 2030

# 2017-2024
# TOKIKO EKINTZA PLANA

# 2017 2024 TOTKIKO EKINTZA PLANA

## 9. 2017 2024 TOKIKO EKINTZA PLANA

Diagnostikotik eta egindako hausnarketa estrategikotik abiatuta, 2017-2024 Ekintza Plana osatu da.

**2017-2024 Ekintza Plana** LEGAZPI KLIMA 2030 estrategiaren lehen zikloaren parte da, eta bere **iraunaldia 8 urtekoa da**. Honela, epe labur, ertain eta luzera begira ekintzen garapen eta exekuzioko epealdi errealetara egokitzen den plangintzarako tresna izango da.

## 10. EGITURA

Plana hiru mailatan egituratzen da:

**7 ildo estrategiko**

**22 programa**

**72 ekintza**

Ekintza bakoitza jarraian jasotzen diren deskribatzaileen arabera gutxienez ezaugarritu da:

- **Ekintzaren deskribapena:** Ekintzaren definizioa eta oinarrizko ezaugarriak, ondoren gauzatzeko eta balioztatzeko gutxieneko elementuak eskaintzen dituztelarik.
- **Arduraduna:** Ekintza gauzatzen edo ezartzen parte hartuko duen udaleko sail edo erakunde nagusia.
- **Epea:** Ekintza gauzatzeko edo ezartzeko gehieneko epea: motza (1-2 urte), ertaina (3-4 urte) edo luzea (5-8 urte).
- **Maiztasuna:** Ekintza gauzatzeko proposatutako maiztasuna.
- **Lehentasuna:** Ekintzak duen lehentasuna (handia, ertaina, txikia) adierazten du, ingurumenean,gizartean edo ekonomian duen eraginaren arabera.
- **Kostua:** Ekintza gauzatzeak edo ezartzeak sortuko duen kostua.
- **Bateragarritasuna Klima Aldaketara egokitzeko Planarekin**: Ekintza Klima Aldaketara egokitzeko Planean sartzen den adierazten du.

# 11. 1. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA

**P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu.**

1.1.1. Hiri Plan Orokorra berrikusi jasangarritasun eta aldaketa klimatikoari egokitzeko irizpideak kontuan hartuz.

1.1.2 Arrisku klimatikoan dauden bizitegi guneak identifikatzeko eta babesteko plana garatu.

1.1.3 Udalerriko baliabide industrialak berrindartzeko mekanismo interinstituzionalen sorkuntza sustatu.

1.1.4. Udalerriko azpiegiturak arrisku klimatikoetara egokitzeko plana garatu.

1.1.5. Hirigintza eta Etxebizitza Planetan arkitektura bioklimatikoko irizpideak sartu.

1.1.6. Udaleko teilatuetan teilatu berdeak ezartzea aztertu.

1.1.7. Auzoen urbanizazio berri integrala garatzeko planak burutu.

**P.1.2. Biodibertsitatearen mantenua bultzatu Interes ekologikoa duten elementuak eta biodibertsitatea mantentzea eta balioan jartzea.**

1.2.1. Lorezaintza Plan berritzaile baten garapena, biodibertsitatea eta ekosistemak herrian barneratuz.

1.2.2. Udaletxeko teknikoekin eta politikariekin biodibertsitatearen inguruko formakuntza ekintzak burutu.

1.2.3. Herritarren ongizatea sustatzeko Legazpiko potentzial naturalistikoa aprobetxatu.

**P.1.3 Baso kudeaketa jasangarri bat burutu.**

1.3.1. Ardanbieta eremuaren hedapena eta basoaren kudeaketa iraunkorra.

1.3.2. Arraseta mendiaren baso kudeaketa iraunkorra eta paisaiaren balorizazioa burutu.

<table>
<tr><td colspan="5">1.1.1. Hiri Plan Orokorra berrikusi jasangarritasun eta aldaketa klimatikoari egokitzeko irizpideak kontuan hartuz</td></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen helburua HAPOa berrikusten denenan iraunkortasun, egokitzapen eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko irizpideak proposatzea da.<br>Mota hauetako irizpideak ezartzearen egokitasuna aztertuko da:<br>-lurzoru berriak artifizializatu baino lehen, artifizialituta daudenak berrerabiltzeari lehentasuna ematea.<br>-teilatu eta horma berdeak ezarri.<br>-ekodiseinu irizpideak kontutan hartu.<br>-zarata maparen emaitzak kontutan hartu.<br>-beharrizan berriei erantzuten dieten bizimodu berrien ezarpena aztertu (Cohousing, adibidez).<br>-korridore ekologikoak eratzearen beharrizana aztertu.<br>-HAPOA garatzeko momentuan, klima aldaketaren aurrean ahultasun diagnostikoaren emaitzak kontutan izan.<br>-genero ikuspuntua barneratu.<br>-biztanleriaren zahartzea kontutan izan.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Ertaina (3-4 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Hurbileko kostua</td><td>180.000,00 €</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Hirigintza. Ane Mendinueta.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Iraunkortasunaren aldeko udal-kudeaketa</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="5">1.1.2. Arrisku klimatikoan dauden bizitegi guneak identifikatzeko eta babesteko plana garatu</td></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen helburua arrisku klimatikoak direla eta kaltetu daitezkeen bizitegi guneak identifikatu eta identifikatutako gune hauek babesteko plana garatzea da.<br>Horretarako, lehengo eta behin, Legazpin eragina izan ahal duten inpaktu klimatikoak (uholdeak, euriteak, bero boladak, etabar) eta lehentasuna duten ondorioak (luiziak, ur falta, etabar) aztertu eta ezarri behar dira.<br>Ondoren, inpaktu hauen arriskupean dauden eremuak identifikatu eta aztertu behar dira aditutako teknikarien bitartez, zein informazio eskaintzen duten agentzien bitartez (UR Agentzia, adibidez). Bukatzeko, ikerketaren informazioa jaso ondoren bizigune hauek babesteko plana idatziko da.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Ertaina (3-4 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Hirigintza. Ane Mendinueta.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="5">1.1.3. Udalerriko baliabide industrialak berrindartzeko mekanismo interinstituzionalen sorkuntza sustatu</td></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen helburua arrisku klimatikoak direla eta kaltetu daitezkeen bizitegi guneak identifikatu eta identifikatutako gune hauek babesteko plana garatzea da.<br>Horretarako, lehengo eta behin, Legazpin eragina izan ahal duten inpaktu klimatikoak (uholdeak, euriteak, bero boladak, etabar) eta lehentasuna duten ondorioak (luiziak, ur falta, etabar) aztertu eta identifikatu behar dira.<br>Ondoren, inpaktu hauen arriskupean dauden eremuak identifikatu eta aztertu behar dira adituetako teknikarien bitartez, zein informazio eskaintzen duten agentzien bitartez (URA Agentzia, adibidez). Bukatzeko, ikerketaren informazioa jaso ondoren bizigune hauek babesteko plana idatziko da.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Ertaina (3-4 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Jarraitua</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Hirigintza. Ane Mendinueta.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">ez</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="5">1.1.4. Udalerriko azpiegiturak arrisku klimatikoetara egokitzeko plana garatu</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen helburua Legazpiko herria bero boladei aurre egiteko prestatzea da. Horretarako, gizatalde desberdinei bero boladak nola eragiten dien aztertu beharko da, adina etab. kontutan hartuz.<br>Ekintza hau garatzeko honako pausoak eman beharko dira:<br>-Bero boladei aurre egiteko beharrezko baliabideak definitu: gizatalde desberdinak kontuan hartuta.<br>-Baliabide hauek herrian txertatzeko azterketa egin eta planifikatu.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Ertaina (3-4 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Hirigintza. Ane Mendinueta.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="5">1.1.5. Hirigintza eta Etxebizitza Planetan arkitektura bioklimatikoko irizpideak sartu</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen helburua eraikinekin lotuta dauden inpaktuak eta kontsumo energetikoak murrizten laguntzea, baliabide naturalak ahalik eta gutxien erabiliz.<br>Horretarako, eraikuntza jasangarriak eraiki eta birgaitzeko ordenantzak idaztea aurreikusten da.<br>Ekintza hau garatzeko honako pausoak eman beharko dira:<br>-Dagoneko beste herri edo mankomunitatetan indarrean dauden ordenantzak aztertu, Legazpirako egokiak diren jakiteko. Ordenantza hauek birgaitze kasuetarako edo obra berriak direnerako izan daitezke.<br>-Ordenantzak idatzi.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Luzea (5-8 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Ertaina</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Hirigintza. Ane Mendinueta.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="5">1.1.6. Udaleko teilatuetan teilatu berdeak ezartzea aztertu</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen helburua udal eraikinetan teilatu berdeak ezartzea aztertzea da. Horretarako, udal eraikinetan teilatu berdea jartzeko behar diren baldintzak aztertuko dira. Ekintza hau garatzeko honako pausoak eman beharko dira:<br>-Teilatu berdea jarri daitezkeen udal eraikinak identifikatu eta eraikin bat aukeratu.<br>-Teilatu berderik gabe, eraikinaren eraginkortasun energetikoa aztertu (neurketa bidez ahal bada) eta teilatu berdea jartzeak izango lituzkeen onurak aztertu.<br>-Bideragarria izanez gero, teilatua aldatu.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Ertaina (3-4 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Hirigintza. Ane Mendinueta.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea</td></tr>
</table>

| **1.1.7. Auzoen urbanizazio berri integrala garatzeko planak burutu** | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA |
| **PROGRAMA** | P.1.1. Hiri planeamenduan aldaketa klimatiko, egokitzapen eta jasangarritasun irizpideak sartu |

**DESKRIBAPENA:**

Ekintza honen helburua Legazpiko auzoak biziberritzea da, ikuspegi integrala kontutan izanik.
Horretarako honako irizpideak hartuko dira kontuan: jasangarritasuna, irisgarritasuna, inklusibitatea, eraginkortsun energetikoa eta aldaketa klimatikoa. Irizpide hauek bai urbanizazioan, baita eraikinetan ere aplikatzen saiatuko gara, auzoek duten izaera bateratua gal ez dadin.
Ekintza hau garatzeko honako pausoak eman beharko dira:
-Auzoak biziberritzeko Plan Bereziak idatzi. Bertan etapa planak edo faseak ondo finkatzea garrantzitsua izango da
-Plan Berezi hauek idazterakoan auzoetako bizilagunekin parte hartze prozesuak egin
-Urte bakoitzean aurrekontu partida bat bideratu horretara.
-Interbentzio hauek osotasunean egiteko dirulaguntza lineak bilatu.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Ertaina (3-4 urte) | **MAIZTASUNA** | Jarraitua | |
| **LEHENTASUNA** | Handia | **KOSTUA** | Baloratzeko zain | (-) |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Hirigintza. Ane Mendinueta. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Egokitzapena | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea | | | |

| **1.2.1. Lorezaintza Plan berritzaile baten garapena, biodibertsitatea eta ekosistemak herrian barneratuz** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA | | | |
| **PROGRAMA** | P.1.2. Biodibertsitatearen mantenua bultzatu Interes ekologikoa duten elementuak eta biodibertsitatea mantentzea eta balioan jartzea | | | |
| **DESKRIBAPENA:**<br><br>Lorezaintza Plan berritzaile bat garatzea, biodibertsitatea eta ekosistemak herrian barneratzeko aukerak bultzatuz, alde batetik herriaren itxura hobetzeko eta bestetik, ikuspegi klimatikoa dela eta, erabilgarriak izango diren aspektuak, hau da, itzalak, espezie erresilienteak, etab., sustatzeko. Lorazaintzako kontratuetan ingurugiroa errespetatzen duten baldintzak kontuan hartu. | | | | |
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Motza (1-2 urte) | **MAIZTASUNA** | Jarraitua | |
| **LEHENTASUNA** | Handia | **KOSTUA** | Zeharkako kostua | (-) |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Nekazaritza. Jone Azpeitia. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Egokitzapena | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea | | | |

<table>
<tr><td colspan="5">1.2.2. Udaletxeko teknikoekin eta politikariekin biodibertsitatearen inguruko formakuntza ekintzak burutu</td></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.2. Biodibertsitatearen mantenua bultzatu Interes ekologikoa duten elementuak eta biodibertsitatea mantentzea eta balioan jartzea</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Bioaniztasunak zenbait arlotan duen garrantziaz udal teknikari eta zinegotziei prestakuntza ematea da ekintza honen helburua. Zertan daukan eragina (klima erregulazioan, lurren higadura, polinizazioa, osasuna…) irakatsi eta biodibertsitatea zaintzeko udaletxetik zer egin daitekeen hausnartu.<br>Ekintza hau abian jarri orduko, gai hauek aztertuko dira:<br>• Ekintza hau noiz garatu. Egokia ikusten da HAPO hasterakoan eta legealdi bakoitzean behin.<br>• Prestakuntza jasoko duten personak edo karguak zehaztea.<br>• Gai zehatz batekin lotu: HAPO, aurrekisita dagoen ekintza zehatzen bat (landara inbaditzaileak kentzea, errekan egin beharreko aktuazioak…).<br>• Adituak gonbidatzearen beharra aztertuko da.<br>• “Biodibertsitatea kudeatzea eta kontserbatzea, tokian-tokian Diagnostikoa, ekintzak eta tresnak” Udalsarea 21eko 15. Lan- Koadernoa hartuko da kontutan.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Motza (1-2 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Lau urtean behin</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Zeharkako kostua</td><td>400,00 €</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Nekazaritza. Jone Azpeitia.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Iraunkortasunaren aldeko udal-kudeaketa</td></tr>
</table>

| **1.2.3. Herritarren ongizatea sustatzeko Legazpiko potentzial naturalistikoa aprobetxatu** | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA |
| **PROGRAMA** | P.1.2. Biodibertsitatearen mantenua bultzatu Interes ekologikoa duten elementuak eta biodibertsitatea mantentzea eta balioan jartzea |

**DESKRIBAPENA:**

Ekintza honen objektiboa, udalerriak edo Legazpiko inguruko naturak pertsonen ongizatea sustatzeko duen potentziala hobetzea da. Horretarako, natura inguruan adin eta beharrizan ezberdinak dituzten talde sozialei ekintza ezerberdinak eskainiko zaizkie.
Horrela, mota honetako ekintzak burutu ahal izango dira:
-Ignaziar bidea sustatu.
-Irakaskuntza zentruetan ingurumen hezkuntzako, zein paisaje intrepretazioarekin erlazionatutako ekintzak burutu.
-Familia moduan naturan garatzen diren aktibitateak proposatu, hala nola mendi ibilbideak, fauna begiztatzeko irteerak, etabar.
- Adinekoei zuzendutako aktibitateak garatu, zahartze aktiboa eta osasungarria azpimarratuz.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Ertaina (3-4 urte) | **MAIZTASUNA** | Puntuala | |
| **LEHENTASUNA** | Ertaina | **KOSTUA** | Baloratzeko zain | (-) |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Ingurumena. Inma Hernandez | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Egokitzapena | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Natur ondasun komunak | | | |

<table>
<tr><th colspan="5">1.3.1. Ardanbieta eremuaren hedapena eta basoaren kudeaketa iraunkorra.</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.1.3. Realizar una gestión forestal sostenible</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Legazpiko udaletxeak udal lur sailen Baso Kudeaketa Plana errebisatu egin du.<br>Lakiola aterpetik Deskargara doan pistatik ezkerretara dagoen pinudiak (9/36) 52 urte ditu. 3 alternatiba planteatu ziren Foroan eta honek, espazio hori aisiarako pentsatuta dagoela kontutan izanik, pinuak pixkanaka pixkanaka mozten joatea proposatu zuen, lurralde hori larre bat bihurtu arte, inguruan gerizpe guneak garatzeko debora nahikoa utziz.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Luzea (5-8 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Ertaina</td><td>KOSTUA</td><td>Zeharkako kostua</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Nekazaritza.<br>Jone Azpeitia.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Natur ondasun komunak</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="4">1.3.2. Arraseta mendiaren baso kudeaketa iraunkorra eta paisaiaren balorizazioa burutu.</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="3">IE.1. HIRI EREMU ABEGIKOR ETA LURRALDE ANITZ NAHIZ EGOKITZEKO GAITASUNA DUENA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="3">P.1.3. Baso kudeaketa jasangarria burutu</td></tr>
<tr><td colspan="4">DESKRIBAPENA:<br><br>Legazpiko udaletxeak udal lur sailen Baso Kudeaketa Plana errebisatu egin du.<br>Arraseta mendiari dagokionez, aukera ezberdinak proposatu ziren Tokiko Agenda 21eko foroan. Aukera ezberdinak Arraseta mendiaren inpaktu paisajistiko eta bisualean izan ahal duten eragina altua dela kontutan izanik aztertu ziren.<br>Birpopulaketa partzelaz partzela egitea aukeratu zen, bi gauza kontutan izanik:<br>-Birpopulaketa egiteko orduan, eta ahal izanez gero, hostozabalak aukeratu.<br>-Espezie bat aukeratu baino lehen, bisualizazio ariketa bat egin, paisajearen ikuspuntutik modu hobean konbinatzen dutenak aukeratuz.<br>Azkenean, horrela geratu da:<br>• U.A.1: Gaur egungo Radiata Pinuaren eremua Aritzengatik aldatu 2023an.<br>• U.A.2: Gaur egungo Radiata Pinuaren eremua Urkiengatik aldatu 2026an.<br>• U.A.3: Gaur egungo Radiata Pinuaren eremua Pagoengatik aldatu 2029an.<br>• U.A.4: Gaur egungo Radiata Pinuaren eremua Amerikar aritzengatik aldatu 2032an.<br>• U.A.5: Gaur egungo Radiata Pinuaren eremua Gereziondoengatik aldatu 2032an.<br>• U.A.6: Gaur egungo Radiata Pinuaren eremua Amerikar aritzengatik aldatu 2032an.</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Luzea (5-8 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Ertaina</td><td>KOSTUA</td><td>Zeharkako kostua</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Nekazaritza.<br>Jone Azpeitia.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Natur ondasun komunak</td></tr>
</table>

# 12. 2. ILDO ESTRATEGIKOA: ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA

**P.2.1. Energia berriztagarri proiektuak bultzatu udalerrian**

2.1.1. Udalerriko tokiko energia iturriak erabiltzeko aukeraren analisia burutu.

2.1.2. Energia berriztagarrien alorrean komunitate proiektuak bultzatzeko analisia garatu.

2.1.3. Eskualde mailan kudeaketa sistema bat ezarri eta energia kudeatzailearen lanpostua sortu.

**P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu.**

2.2.1. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko dauden neurri fiskalak zabaldu.

2.2.2. Kale argiztapenaren diseinuaren berrikuspen eta optimizazio plana garatu.

2.2.3. (SMART) Energi kontsumitzaile handiak diren eraikuntzen monitarizazioa burutu.

2.2.4. Udal eraikuntzetan eraginkortasun energetikoa sustatu.

2.2.5. Herritarrei zuzenduta dauden eraginkortasun energetikoari buruzko sentsibilizazio ekintzak garatu.

2.2.6. Udal isurketak kalkulatu eta murriztu.

2.2.7. Udalerrian energia txirotasunaren analisia eta jarduketa protokolo bat garatu.

**P.2.3. Mugikortasun jasangarria bultzatu**

2.3.1. Mugikortasun Jasangarriaren Planean deskribatutako ekintzal ezarri.

| **2.1.1. Udalerriko tokiko energia iturriak erabiltzeko aukeraren analisia burutu** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA | | | |
| **PROGRAMA** | P.2.1. Energia berriztagarri proiektuak bultzatu udalerrian | | | |

**DESKRIBAPENA:**

Legazpiko udal eraikinetan energia berriztagarrien bitartez (eguzki energi fotoboltaikoa, geotermia, biomasa, district heating) energia sortzea. Eskualdeko Energia Planaren bitartez , hurrengo ekintzak identifikatu dira:
- Autokontsumorako energia fotoboltaikoa ekoiztu.
- Geotermiaren bitartez funtzionatzen duten ur beroa zein berokuntza sistemak ezartzea eraikuntza berrietan, zein berrikuntza integrala jasatzen duten eraikuntzetan.
- Biomasa galdarak erabiliz, gertu dauden eraikuntza publikoetan district heating sistemak ezartzea aztertzea.
- Biomasaren bitartez autokudeaketa termikoa sustatzea, eta konkretoki, eskualdeko basoen bailabideak aprobetxatu ahal diren kontutan hartu.

Proiektu guztiak bideragarritasun ikerketa bat, zein erabiliko diren sistemen diseinua garatu eta gero jarriko dira abian. Gainera, ekintza hauek Eskualde Energia Planak egokiak deritzon eraikuntzetan burutuko dira.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Ertaina (3-4 urte) | **MAIZTASUNA** | Urtean behin | |
| **LEHENTASUNA** | Ertaina | **KOSTUA** | Baloratzeko zain | (-) |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Obrak eta Zerbitzuak. Alonso Francés. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Arintzea | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Natur ondasun komunak | | | |

<table>
<tr><th colspan="6">2.1.2. Energia berriztagarrien alorrean komunitate proiektuak bultzatzeko analisia garatu</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="5">IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="5">P.2.1. Energia berriztagarri proiektuak bultzatu udalerrian</td></tr>
<tr><td colspan="6">DESKRIBAPENA:<br><br>Energia berriztagarrien alorrean diren komunitate proiektuak bultzatzeko analisia egin, partaidetza eta bertako garapena eta burujabetza energetikoa sustatuz tasen edo konbenioen bitartez.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Luzea (5-8 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="3">Urtean behin</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Ertaina</td><td>KOSTUA</td><td colspan="2">Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Obrak eta zerbitzuak. Alonso Francés.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="3">Arintzea</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="5">Natur ondasun komunak</td></tr>
</table>

| **2.1.3. Eskualde mailan kudeaketa sistema bat ezarri eta energia kudeatzailearen lanpostua sortu.** | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA |
| **PROGRAMA** | P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu |

**DESKRIBAPENA:**

Ekintza honen helburua udaletxeko erainkuntzen kontsumo energetikoen kontrola eta segimendua egitea da, eraginkortasun energetikoarekin erlazionatuta dauden ekintzak ezartzeko eta energi gastuak kontrolatzeko.
Horretarako, udalerri ezberdinetan energia aurrezpenarekin eta energia berriztagarriekin erlazionatuta dauden ekintzak sustatzeko barne lanpostu bat beharrezkoa da. Eskualdeko energi kudatzailearen betebeharrak hauek lirateke:
-Elektrizitate kontratuen, instalatutako potentziaren, energia reaktiboaren, kontsumo eta kostu energetikoen segimendua eta kontrola egitea.
-Ekipamenduen instalakuntza energetikoentzat protokoloak ezarri eta ekipoen ordutegia ezarri, benetazko erabilpenari egokituz.
-Jardunbide egokien eskuliburuak instalakuntzei egokitu eta zentruaren langile eta erabiltzaileei ezagutzera eman.
-Prezio hobe bat eskaintzeko merkatu libreko merkaturatzaileei ofertak eskatu.
- Instalakuntza berriak martxan jartzeko orduan, udal teknikariei aholkatu.
- Energi alorreko diru-laguntzak kudeatu eta hauei buruz aholkatu.
-Aholku energetikoa eskatzen duten herritarrei aholkua eta laguntza teknikoa eman.
- Jatorri %100 berriztagarria eskaintzen duten kontratuak egitea aztertu.
- Ekintza honetan, kaudeatzaile energetikoaren lanpostu hau UGGASAren barne sortzea proposatzen da.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Ertaina (3-4 urte) | **MAIZTASUNA** | Puntuala |
| **LEHENTASUNA** | Handia | **KOSTUA** | Baloratzeko zain |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | UGGASA. Itziar Salaberria. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Arintzea |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Iraunkortasunaren aldeko udal-kudeaketa | | |

| **2.2.1. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko dauden neurri fiskalak zabaldu** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA | | | |
| **PROGRAMA** | P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu | | | |
| **DESKRIBAPENA:**<br><br>Gaur egun Legazpiko Udalak hobari fiskalak eskaintzen ditu gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak erosteko eta eraikinetan energia berriztagarriak jartzeko.<br>Ekintza honen helburua laguntza horien berri ematea da.<br>Horretarako, dagoen informazioa bilduko da eta modu errazean eta adibideak jarriaz behar bezala azalduko da gaia. Erabiliko diren bideak (udal aldizkaria, web orria, etxeetara eskutitzak bidaltzea, hitzaldiak,….) aztertuko dira eta lehentasunezko kolektiboak eta zabalkundea egiteko egutegia zehaztuko dira**.** | | | | |
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Motza (1-2 urte) | **MAIZTASUNA** | Urtean behin | |
| **LEHENTASUNA** | Ertaina | **KOSTUA** | Zeharkako kostua | 100,00 € |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Ingurumena. Inma Hernández. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Arintzea | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Kontsumo eta bizimodu arduratsuak | | | |

| **2.2.2. Kale argiztapenaren diseinuaren berrikuspen eta optimizazio plana garatu** | |
|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA |
| **PROGRAMA** | P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu |

**DESKRIBAPENA:**

Helburua argiteriarekin lortutako kontsumo energetikoak murriztea da.
-Argiteria LED teknologi sistema bat duen argiengatik ordezkatzea proposatzen da. Ordezkatzea proposatzen den argiteria hau da: 1.281 argi, 147kw-etako potentzia estimatu batekin.
-Puntuz puntuko urrutiko kontrola instalatu. Teknologi honek argi puntu bakoitzeko urrutiko kontrola, zein kontsumoaren monitorizazioa ahalbidetzen du. Horretarako, argi puntu bakoitzak komunikazio nodo bat eduki behar du sistema orokorrarekin konektatu ahal izateko elektrizitate kablearen bitartez. Argi puntu bakoitzak IP elementu ezberdinekin (sentsoreak, megafonia, video, informazio panelak, etabar) konektatu daiteke. IP elementu hauen bidez argi bakoitzaren komunikazio nodora datuak bidaltzen dira. Udalerri guztiaren argiteria barneratuta dagoenez, Smart City bat garatzeko plataforma egokia da. Smart City-etako azpiegiturek teknologi erantzun aurreratuak dituzte. Hauek hiritarren eta hiri elementuen arteko erlazioa errazten dute, bizimodua erosoagoa eta sozialagoa eskainiz eta parte hartzeko aukera gehiago emanez.
-Udalerriko kaleetako argien mapa garatu gatazka sortu ahal duten eremuak identifikatzeko eta ordezkapenak burutu eta gero emaitzen konparazioa egin ahal izateko. Argiteria ordezkatzen den neurrian emaitz berriak neurtzea egokia litzateke eta argi kopurua doitzea urrutiko kudeaketako sistemarekin, argi kopuru zehatza ziurtatzeko.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Luzea (5-8 urte) | **MAIZTASUNA** | Jarraitua | |
| **LEHENTASUNA** | Handia | **KOSTUA** | Hurbileko kostua | 27.680,00 € |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Obrak eta Zerbitzuak. Alonso Francés. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Arintzea | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Jasangarritasunaren aldeko Udal kudeaketa | | | |

| **2.2.3. (SMART) Energi kontsumitzaile handiak diren eraikuntzen monitarizazioa burutu** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA | | | | |
| **PROGRAMA** | P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu | | | | |

**DESKRIBAPENA:**

Energia kontsumitzen duten eraikuntzen eta instalakuntzen eraginkortasun energetikoa mantentzeko, denboran zehar egiten den energia kontsumoaren kontrol, erregistro eta ebaluaketa egitea ezinbestekoa behar da. "Euskal Autonomi Erkidegoko administrazio publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko legearen anteproiektuaren" 11. artikuluaren arabera, 25kW-etako potentzia baino gehiago instalatuta dituzten eraikuntzen kontsumo energetikoa monitorizatu eta kontralatu behar da urtean behin. Datuak jasotzen oinarritzen den plataforma elektroniko baten ezarpena proposatzen da. Jasoko diren datuak instalakuntzen erabilera eraginkorra den ala ez ezagutzeko lagunduko dute, kontsumo energetikoa edo beste kanpo parametro batzuk (eraikuntzaren barruko tenperatura adibidez), besteak beste. Gutxienez, ur, elektrizitate eta klimatizazio sistemaren kontsumoak monitorizatzea proposatzen da. Honela, datu base bat garatu ahal izango da, non instalakuntza ezberdinen energia sistemak kudeatuko diren, erabakiak hartzeko prozesua erreztuko den eta erabilera eta kontsumoa bat egiten duten teknika energetikoa aplikatu ahal izango diren. Monitorizazioaren bidez kontsumoak egokitu ahal izango dira, erabilerak kontrolatu eta instalakuntzen eraginkortasuna behatu. Arkitektura irekia duen sistema bat garatzea gomendatzen da. Horrela, funtzionatzen ari diren beste sistema batzuekin bateragarria izan daiteke edo etorkizunean eraiki ahal diren beste elementuak ere barneratu daitezke.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Luzea (5-8 urte) | **MAIZTASUNA** | Jarraitua | |
| **LEHENTASUNA** | Handia | **KOSTUA** | Hurbileko kostua | 51.000,00 € |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Obrak eta Zerbitzuak. Alonso Francés. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Arintzea | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Jasangarritasunaren aldeko Udal kudeaketa | | | |

| **2.2.4. Udal eraikuntzetan eraginkortasun energetikoa sustatu** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA | | | |
| **PROGRAMA** | P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu | | | |
| **DESKRIBAPENA:**<br><br>Ekintza honen objektiboa Udal eraikuntzen energia eraginkortasuna hobetzea da. Horretarako, hurrengo pausuak emango dira:<br>-Udal eraikuntzen ezaugarrien, energia kontsumitzen duten ekipoen, energi sama kurba orokorren, bere kostuaren eta ezarri ahal diren aurrezpen aukeren azterketa bat egin.<br>-Udal instalakuntzen argiteriaren kontsumo energetikoak murriztu. Horretarako, zahartuta dauden argiak (fluoreszenteak, halogenoak, etabar) eraginkorragoak diren teknologia berriengatik (LED) aldatuko dira.<br>-Udal eraikuntzetako klimatizazioarekin erlazionatuta dauden kostuak murriztu, ur beroa ekoizteko galdarak eraginkorragoak diren beste modeloengatik aldatuz.<br>-Udal eraikuntzetarako ingurugiro jardunbide egokien eskuliburua garatu eta eraginkortasun energetikoari buruzko sentikortze kanpainak burutu Udal langileen artean energiarekin erlazionatuta dauden ohiturak hobetzeko. | | | | |
| **GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA** | Ertaina (3-4 urte) | **MAIZTASUNA** | Jarraitua | |
| **LEHENTASUNA** | Handia | **KOSTUA** | Baloratzeko zain | (-) |
| **ERANTZUKIZUN NAGUSIA** | Obrak eta zerbitzuak Alonso Francés. | **ALDAKETA KLIMATIKOA** | Arintzea | |
| **AALBORG-EKO KONPROMISOA** | Jasangarritasunaren aldeko Udal kudeaketa | | | |

<table>
<tr><td colspan="5">2.2.5. Herritarrei zuzenduta dauden eraginkortasun energetikoari buruzko sentsibilizazio ekintzak garatu</td></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Objektiboa bizitegi eta zerbitzu sektoretan kontsumo energetikoa murriztea da, energia eraginkortasuna sustatuz. Ekintza hau hurrengo aktibitate hauek garatuz burutuko da:<br>-Argiak LED lanparengatik aldatzea sustatzeko informazio kanpainiak. UGGASA agentziatik eta Udaletxeetatik eraikuntzen energia eraginkortasunean eragina duten ekintzei, zein ildo estrategikoei buruzko informazio orokorra hedatuko da, udaeko webgunetan adibideak eskeintzen dituzten loturak eskeiniz. Informazio ekintza hauei esker, hurrengo urteetan energia eraginkortasunarekin erlazionatuta dauden ekintzak burutuko dira etxeetan, eraginkorragoak diren argiengatik ordezkatuko direlako argi zaharrak.<br>-Sentikortze kanpainak “etiketa energetikoaren” interpretazioaren inguruan, ekipo elektrikoen eraginkortasun energetikoaren inguruan eta hauen kontsumoen inguruan burutuko dira. Baita ere, ekipo ezberdinen konparaketak egingo dira. Bestalde, etxetresna batzuen mantentze lanak ezagutzera ematea ezinbestekoa da, hotzgailuarena eta labearen, besteak beste, hauen erabilpena ahalik eta eraginkorragoa izan dadin.<br>-Sentikortze kanpainak burutuko dira, galdarak aldatzea beharrezkoa denean kondentsatzio galdaren instalakuntza sustatzeko. Honela energia aurrezpen zein diru aurrezpena lortzen da.<br>-Udal-ordenantza bat idaztea proposatzen da, non auzokide komunitateek eraikuntzen fatxadak berreraikuntzen dituztenean, gutxienezko isolamendu termiko bat ere egitea derrigortzen den. Gainera, proposamen hau bultzatzeko udal zorgetan deskontuak eskaintzea gomendatzen da.<br>-Etxebizitzetako kontsumo energetikoa monitorizatzeko sentikortze kanpainak egingo dira, horrela energia eta diru aurrezpena lortuz.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Luzea (5-8 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Jarraitua</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Ertaina</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Obrak eta zerbitzuak Alonso Francés.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Arintzea</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Kontsumo eta bizimodu arduratsuak</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="5">2.2.6. Udal isurketak kalkulatu eta murriztu</td></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Urtero udal isurketa inbentarioak kalkulatu eta zenbait arlotan sakondu: udal edifizioak, kale argiteria eta udal ibilgailuak. Eboluzioa aztertu eta murrizteko eta, ahal den heinena, konpentsatzeko nuerriak hartu. Guzti hau herritarrei jakinarazi.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Motza (1-2 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Urtean behin</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Zeharkako kostua</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Ingurumena. Inma Hernández.</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Arintzea</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Tokian tokikotik mundu globalera</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="5">2.2.7. Udalerrian energia txirotasunaren analisia eta jarduketa protokolo bat garatu</th></tr>
<tr><td>ILDO ESTRATEGIKOA</td><td colspan="4">IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA</td></tr>
<tr><td>PROGRAMA</td><td colspan="4">P.2.2. Eraginkortasun energetikoa bultzatu eta kontsumo energetikoa murriztu</td></tr>
<tr><td colspan="5">DESKRIBAPENA:<br><br>Ekintza honen objektiboa Legazpiko energia txirotasunaren egoeraren analisia egitea da lehenengo eta behin. Honekin, egoeraren datu kuantitatibo zein kualitatiboak lortuko ditugu. Gero, egoera hauek murrizten edo ezabatzen dituen protokolo baten ezarpena aztertuko da.</td></tr>
<tr><td>GAUZATZEKO/EZARTZEKO EPEA</td><td>Motza (1-2 urte)</td><td>MAIZTASUNA</td><td colspan="2">Puntuala</td></tr>
<tr><td>LEHENTASUNA</td><td>Handia</td><td>KOSTUA</td><td>Baloratzeko zain</td><td>(-)</td></tr>
<tr><td>ERANTZUKIZUN NAGUSIA</td><td>Obra eta zerbitzuak. Alonso Francés</td><td>ALDAKETA KLIMATIKOA</td><td colspan="2">Egokitzapena</td></tr>
<tr><td>AALBORG-EKO KONPROMISOA</td><td colspan="4">Berdintasuna eta justizia soziala</td></tr>
</table>

| **2.3.1. Mugikortasun Jasangarriaren Planean deskribatutako ekintzal ezarri.** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **ILDO ESTRATEGIKOA** | IE.2. ENERGIA ALDETIK ARDURATSUA NAHIZ ERAGINKORRA, ETA MUGIKORTASUNEAN ATSEGINA, DEN UDALERRIA | | | |
| **PROGRAMA** | P.2.3. Mugikortasun jasangarria bultzatu | | | |

**DESKRIBAPENA:**

Ekintza honen objektiboa Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren (LMIP) ekintzak martxan jartzea da. Mugikortasun plana, Legazpi KLIMA plana egiten ari den momentuan idazten ari da. Mugikortasun plana idatzita dagoenean, bere ekintza nabarmenenak KLIMA 2030 planean barneratuko dira, batez ere beraien segimendu eta ebaluaketa ziurtatzeko.
